

## **HISTORIA, LAGUN ESTATUA BERRESKURATZEKO**

Ainhoa (2002.12.17)

Geure Historia ere; neurri handi batean, Nafarroako estatuari lotua doakionez, Estatu zapaltzaileen esku gelditu da. Nafar lurralde gehienak armez eta faltsukeriaz konkistatuak izan zirenean; saialdi batzuen ostean Hondarribiako gotorlekua berreskuratu izan genuela argira ateratzea, publiko egitea, izan da ekitaldiaren lehen asmoa. Ildo beretik, gertakari historiko horren garaileak omentzearekin batera ezinbestez behar dugun Estatu aldarrikatzea izan da, hain zuzen, geure xede nagusia. Espainiako estatuaren menpe zeuden Hondarribiako nafarrek euren ejertzitoari esker gotorlekua bereganatzea lortu zuten; eta hori horrela, gertakizuna ezin ahazturik jorratzen ari garen bide politikoan eredu adierazgarri bilakatu da. Geuk, asmo txarrez desitxuratuta ezarri nahi duguten Espainiako historia hori, konkistan duela bere jatorria eta abiapuntua agerian utzi behar dugu. Geure Historia, aldiz, konkistak eta zapalkuntzak ekartzen dizkigun gaitz guztien jatorria argitzeko eta bertatik irteteko, hau da, Estatua berreskuratzeko tresna askatzailea behar du izan. Era berean, Espainiarekiko ditugun estekak hautsiz; geure legeak, moralak, bizitzeko moldeak eta abar eratzera eta legitimatzera jo behar dugu.

### **NORABIDE POLITIKOA ZUZENTZEN**

Geure baitan izaten jarraitzeko eta Historia arakatzek ezinbesteko ondoriora eraman gaitu: Estatua berreskuratzera. Norabide politiko berrian; aurrekoetan ez bezala, Hondarribian burutu dugun ekitaldiak baditu bere ezaugarriak aipatzea eta aztertzea merezi dituenak:

Nafar ejertzitoaren garaipena; 1521eko urriaren 18an libratu zena, ospatzea izan da, besteak beste, ekitaldiaren asmoetako bat. Politika, behin eta berriz, indarrean datzala gogorazten digu. Baita Espainiako barne eta kanpo arazoak sortaraziko ahulezia eta ezina aprobetxatuz ere, Hondarribiako itsas gotorlekua berreskuratu ahal izan genuen. Omenduek, hain zuzen ere, antzeko egoeretakako prest egon behar dugula irakasten digute.

Nafar Estatuaren zati gehiena konkistapean zegoenean berreskuratzeari ekin zioten. Hondarribiatik itsasaldera eta Amaiurtik barnealdera joateko gotorleku estrategikotzat hartuko dituzte. Antza denez, XIII. mendearen hasieran konkistatutako mendebaldeko lurraldeak berriro ere euren burutazioetan zeudela jakina da.

Ekitaldiak Marina deitzen den auzoan izan zuen hasiera. Nafar bandera ugariak strategi berri baten abiapuntuan geundela garbi utzi zuten. Nafar ejertzitoak zeraman berdina, hain zuzen. Bilgunetik Gotorleku edo Gazteluaren atarian dagoen Armen Enparantzara manifestaldian igo ginen. Dantzariak, nafar banderak zabalik...denon ikuskizun ginen bitartean geure manifestazioaren berri ematen genien ahoz edo orriak banatuz galdetzera hurbiltzen zirenei.

Ekitaldi nagusia Armen Plazan in situ garaile izan ziren lekuan izan zen. Ekitaldirako dena prestatuta zegoen, eta bildu gineno ongi etorria emanez hasiera eman zitzaion.

Garaipena lortu zuten nafar haien Oroitzapenezko Agiria irakurri zen.

Ondoren, nafar heroiei omenaldia:

- Bertsoak euren balentria goratuz
- Dantza militarrek. Ezpata altxatuz agurtu eta omendu zituzten.
- Lore- sorta eskaini zitzaion.
- Aldeko oihuak, gorak, txaloak...